

Kasualidadie

Goiza da. 10.44ak kotxeko irratiko ordutegi koloretsuan...

Kotxetik irten naiz. Kotxea. Etxea. Ko-etxea... filosofoa bezala, pentsalaria bezala, nobel sariduna bezala. Zenbat gauza izan daiteke pertsona batek?

Nire garuna martxan jarri da, gutxinaka, eta beti egin duen zerbait egiten ari da; hitz berriak asmatzen ari da. Bada egun pareta bizitza hankaz gora jarri zaidala eta kotxean egiten dut lo. Lehen bizikleta erabiltzen nuen beti, orain kotxean bizi naiz. Baina ez dut uste nire bizitza Mel Gibson edo Bruce Willis bezalako pelikula bat denik. Gainera ni ez naiz polizia. Egia esan Mel eta Bruce, nik dakidanik, ez dira poliziak. Ezin ninteke polizia izan, beraiek batzuetan polizia izatearen ilusioa bizi egiten dute. Fikzioa eta errealitatea. Filosofiarentzat galdera, baina ni ez naiz filosofoa. Kazetaria naiz. Nire lagun Rayk esaten zuen bezala, kazetariok egiaren poliziak direla esaten dute. Rayk ere kazetariok filosofoak ere garela esan ohi zuen, fikzioa errealitate bihurtzen saiatzen garelako, edo alderantziz al zen? Ray Afganistanen hil zuten, min kolateralak deritzoten horietako eraso batean. Nik sentitzen dudana mina da, horretaz ziur nago. Kolateral hori nik ez dakit nondik datorren.

Nire anaiaren kotxea da. Ez dakit zein marka den, baina beltza da. Uste dut. Beltza gustoko dut. Nire benetazko pelikula honetan ez da ezer gertatzen. Nire anaiak zoroen pelikulak deitzen zituen nik horrelako filmeak alokatzen nituenean. Etxera iritsi bezain laster gure gelatik irten eta karatula ikustean "Joder, otra peli de atrapaus!" oihukatzen zidan.

Bai. Nire anaiarekin gazteleraz hitz egiten dut. Frankismoaren min kolaterala. Erregimenaren garaipen isila, kirolarekin zerikusirik ez duten garaipen guztiak bezala. Isila bezain suntsitzailea. Nire pelikula honetan ez da ezer gertatzen. Baina hori esan dizut jada. Nota hauek ez dute ezertarako balio izango. Nahiko zoratuta nago. Ziurrenik nire idazkera ulergaitza dela eta zure kabuz hori asmatu duzula jada. Agian ez.

Hotz egiten du. Ez handia, ez txikia. Hotza. Kafe usainez inguratua nago, taberna batean. Kafe usaina ez... hobeto esanda... kiratsa... hobeto usainduta. Leihoan, nire irudiaren islada ikusi eta nire bizarraren zehaztasun zorrotzak hobeto ikusteko altxatu naiz. Leihorantz noan bitartean emakume bat ni begira dagoela somatu dut. Aurrera jarraitu dut. Ez pentsa, ez zait sarritan gertatzen,

emakumearena. Beraz, nire pertzepzioa guztiz faltsua izan daiteke, eskerrak egunkariek hori ez dakitela, eskerrak bezeroek hori ez dakitela. Bezeroak? Horrelakorik ez dago jada... dena gertatzen da beste edonon. Kapitalismoak bezeroak egin eta desegiten ditu. Goazen harira. Goazen leihora. Leihora hurbiltzen naizen bitartean nire irudia desagertuz doa eta kalea soilik ikus dezaket. Nola ez naiz zoratuko ba? Hor nengoen eta orain ez nago. Nire aitarekin gertatu zen bezala. Nire anaiarekin gertatu zen bezala. Nire alabekin gertatu zen bezala. Nire emaztearekin gertatu zen bezala. Nire islada ere guztiz desagertu eta kale bat aurrean daukat. Ez dakit zein den kalearen izena, eta berdin diola uste dut. Argazki bat aterako dut eta listo. Baina badakit Mungian gaudela, eta hori garrantzitsua izan daiteke. Horrela aurkitu egingo nauzu.

Kaka zaharra... boliaren tinta bukatzen ari zait eta dena buruz gogoratu beharko dut. Ezin izango dut zer gertatzen ari den azaldu eta gero errealitatea fikzio bihurtuko zait ile azpian dagoen tresna honi esker. Ai!. Kaka zaharra. Boli puta! Gogorrago idatzi beharko dut. Edo boli bat eskatuko diot tabernariari.

- Boli bat utziko al didazu?
- Noski baietz. Mikolasa ez al da ba zure amoma izango?
- Nola dakizu ba?
- Zuri buruz baino ez dabil hitz egiten gure Mikolasa maitea, eta urteak egon gara zure zain. Hemen. Ez bakarrik ni... ikusten al duzu hor eskinan eserita dagoen emakume hura?
- Bai- eskinan dagoen emakumea, lehen niri begira zegoen emakume berbera dela imaginatuko zenuke, eta zuzen zaudela esan beharko nizuke.
- Joan zaitez ba berarekin hitz egitera...
- Zertarako?
- Zu begira zergatik dagoen ulertzeko. Ez al zara ba kazetari ospetsua? Ez al zaude ba nobelatxo lirain bat idazten?
- Bai, baina...
- Lotsatute? Mariren ilobaz lotsatute? Ai ama... jesusmaríaetajosé.
- Mariren iloba?
- Bai, zure amonaren lehengusinarene iloba. Bera da bai.

- Eskerrikasko- emakumearengana noa.
- Ei!
- Zeee eeeer?- urduri baino urduriago tabernariarengana noa bueltan. Zerbait gaizki egin izan banu bezala, eskolan etxekolanak egin barik joaten nintzenean bezala. Aspaldi ez naizela horrela sentitu, zorigaitzagatik edo dela uste dut. Ezer galtzeko ez daukanaren hustasun hori askatasunez betetzen delako... baina orain beldurra sentitzen dut berriz ere. Beldurra edo lotsa, edo nik zer dakit, aspaldi ez naizela horrela sentitzen...
- Ez ahaztu bolia bueltan ekartzen.
- aa aa...

Eskinan dagoen emakumea ile labur laburra dauka. Orduak emango nituzke deskribatzen, eta hori ez da garrantzitsua. Polita dela esaten badut arinago hasiko naiz hau guztia ulertzen eta berak kontatu behar dizkidan guztiak entzuten. Ba al dakizu nor den Charlotte Gainsbourg? Ba emakume hau Charlottekin antza itzela daukala uste dut. Listo! Horrela arinago bukatuko dut, ez zaizkit deskribapen luzeak gustatzen. Beharbada horregatik beti ibili naiz gerrate batetik batera. Han deskribapenak egiteko denborarik ez dago eta korrespontsal baten lana akzioa kontatzea baino ez da. Kontatzea eta zenbatzea... zenbat hildako, zenbat zauritu, zenbat arma, zenbat soldadu, zenbat kamioi, zenbat mina... eta gerrate batean heriotza deskribatzea oso erraza da; Oihuak, isiltasuna, oihuak, negarrak, isiltasuna... Zigarro bat erretzen ari da, beharbada ez... baina hori ez da garrantzitsua...

- Egun on. Tabernariak zuregana etortzeko esan dit.
- Egunon? Oinartean ona ixen da zeure egune ela?
- Orain arte ez...
- Eskerrikasko. Zu Mikolasan lobeaz bazara famelie gara ixen, halan da ze ez zitzet hasi gizonkeriekaz nizez. Oingo berbaldireko lagun bi gara, sexubakoak; eztu narrurik joko eta ez dostezu mosurik emongo. Konforme?
- Zuk horrela badiozu... Euskalerriko familien endogamia, euskaldunon lotsa eta hotzaren aurrean irtenbide bakarra zela uste nuen. Baina horiek beste garai batzuk ziren. Halere, nik sekulako kotxea daukat...
- Banoa hametik... - zutik jarri da. Besotik heldu eta jesartzeko keinua egin diot.

- Txantxetan ari nintzen. Etixerik ez dut, alokatzen nueneko apartamentutik kaleratu naute eta orain kotxean bizi naiz-Charlotte berriz eseri da. Aurpegia erlaxatu zaio. Ez zegoen erretzen, txupatxus bat zen. Besoa askatu diot.
- Ni kazetarie ta idazlea zintzela ta egon naz.
- Nola da posible herritar guztiek niri buruzko xehetasunak izatea?
- Xehetasunak dinozu? Mungi herri txikerra da... lelau txikerraua zan, gure amasan sasoian. Lagune berbeak zeuzer esan gure zeuen sasoian. Lantzarrak egozan sasoian. Euskalkiek egozan sasoian. Kantariek egozan sasoian... berba eitten zan sasoian.
- Kontatuko al didazu zergatik nagoen hemen eserita?
- Filosofikamente?
- Ez.
- Neuk bere adarra joten bakitt... Ba asuntue da nire amoma ta beste lengusin bi lagun on-onak ixen zirela. Mikolasa ta Mari ta Josepa. Hirurek antze antzekoak, ahiztek balittikelez.
- Eta Josepa? nor da Josepa? Non dago?
- Nor zan...
- bera ere...
- bai, nire amoma baino urte bat lelau.
- sentitz...
- Asuntoa da Mikolasa bisitea eitten etor zakola oiñ 3 hilebete ingeru, ta orduentxe emon zotzon atakerik fuertienak.
- Nori ? Josepari ?
- Ez ! Mariri... benetan kazetarie zarala... eta idazlea ?
- Idazle izateari balio handiegia ematen diogu. Eta gainera ez naiz idazle profesionala... kazetaria bai...
- Aber... Marin atakeakaz Mikolasa ikeratute lotu zan ta giau etorri bere ezan eiñ. Geittu ta sarri eitten zeuen baia ez zan etorten atrebiduten. Bien bittartean amoma pasadan barikuen txarto pare zan. Ez zeuen ezer bere tragetan eta medikuek esaoskuen suero bat imingo zotziela etzean bertan (hidrateta egon ditten) morfina apur betegaz eta arnasea hobeto hartxeako beste zeuzegaz. Ez

emoteko jatekorik arean bere ta trankil isteko ze orduetan hilko zala. Egunek eurrera ta hiltterik ez.

- Eta?
- Ta neuk neure artean pentzetan neuen: "honek zegaittik deko hain agoni luzea, barikutik hona hil gure ta ezin. Nori begire dau ba?"
- Pixkanaka ulertzen hasi naiz.
- Atzo halau baten etor da Mikolasa amoma bisittetan. Ta handik ensegida idi dotxus begiek, eintzo barretxu bet ta hil inde.
- Nik eraman nuen Mikolasa zuen etxera... nire kotxean...
- Ta Mikolasak "neuri begire onda koittediau..."- Charlotten begiak dardarka hasi dira. Aurpegia bustitzen hasi zaio.
- Mikolasa oraindik ez dit ezer esan. Kotxean sartu zenetik ez du hitzik egin. Ez zidan ezta Mari hil zela esan.
- Bien bittartien hasi de ama familikoak geittuten, beran lengusinek, ixekoak...
- Eta?
- Eta orduen Joxepan alabeagaz berba ein deuean difotzo "bai, geur da urtea gure ama Joxepa hil zala".
- Inporta al datzu istorio hau kontetan badot?
- Ez. Zergaittik pentzetan dozu zeugez berba ein gure neuela ba...

Bagoaz. Banoa. Ez dakit bakarrik joango naizen ala ez. Ez dakit ziur. Ez dut bakarrik joan nahi. Bolia bueltan eman diot tabernariari, eta orain kaka honekin idazten hasi beharko dut berriro. **Charlotte nire ondoan eseri dela uste dut. Kotxean gaude. Charlotte, charlotte, charlotte.** Bai, hemen dago... Isiltasuna, negarrek, isiltasuna... Mikolasaren baserrira goaz. Charlotten eskua heldu dit. Hemendik aurrera ezin dut idatzi.